



GIDA

AURREIRITZIETATIK KULTURARTEKOTASUNERA



AURREIRITZIEN ZAMA KENTZEKO ERREZETA |



Aurreiritziek ez dizute
aurrean duzuna ikusten uzten?
Oraindik ez zara ohartu
zure balorazio ororen oinarrian
aurreiritzi bat dagoela?



IDENTIFIKAZIOA

GAITASUNAK

- *Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna:* Hizkuntzak erabiltzean errealitatea adierazi, interpretatu eta ulertzeko.
- *Matematikarako gaitasuna:* Errealitatearen alderdi kuantitatiboari eta espazialei buruzko ezagutzak zabaltzeko eta egunerokotasunean planteatzen diren arazoei arrazonamendua erabiliz aurre egitean.
- *Zientzia teknologia eta osasun kulturalerako gaitasuna:* Gertakariak ulertzeko ingurune natural zein artifizialari erreparatzerakoan.
- *Gaitasun digitala eta informazioaren trataera:* Informazioa teknologia berrien bitartez lortu, antolatu eta prozesatzerakoan.
- *Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna:* Gizartearen errealitatea ulertzean, lankidetzan arituz eta herritartasun demokratikoa garatuz.
- *Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna:* Kulturak ezagutu, balioetsi eta kritikoki baloratzerako orduan.
- *Ikasten ikasteko gaitasuna:* Ikasten hasteko trebetasunak garatzean eta gero eta ikasketa autonomoago bat garatzean.
- *Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna:* Balio eta jarrera pertsonalez jabetzean eta hauek modu eraginkorrean aplikatzean.

IZENA

Aurreiritzietatik
kulturartekotasunera


DENBORALIZAZIOA

Proiektua mugagabea dela esan dezakegu, helburua kontzientzia aldaketa bat gauzatzea delako eta hori lortu ezean, amaitutzat eman ezin delako.

BIDEOAN JORRATZEN DIREN AURREIRITZIAK

- Bakoitzaren bizitokia finkoa izan behar da.
- Migratzea txarra da eta soilik txiroak egiten dute.
- Etorkin baten izaera arraza bereko guztien artean orokortu daiteke.
- Kultura desberdintasunak soilik herrialde desberdineko pertsonengan ematen dira.
- Migratzen dutenak beti dira arraza berekoak.
- Afrikar guztiak txiroak dira.
- Eskoletan etorkinak alperrak dira etorkizunean ez dutelako ikasketarik beharko.
- Gure kultura besteena baino hobea da.
- Ezaugarri fisikoak norberaren jaioterria zehazten dute.

**GIDAREN
EGITURAKETA**



BIDEOAREN ERABILPENERAKO INFORMAZIO OROKORRA

KONTRAINDIKAZIOAK

Proposatutako jarduerekin hasi baino lehen edo hobeto esanda, euren eraginkortasuna bermatzearren, ikasleak gaiaren inguruan baim storming bat izanda eduki beharko dute ulermena eta parte hartzea errazteko asmoz.

Bideoa aurrera joan ahala, interesgarria izango da bideoa eteten joatea. Berez honek bideoaren jarraitasuna eteten badu ere, garrantzitsuagoa da bideoan agertzen diren edukien esanahia bere osotasunean barneratzea eta beharbada, irakasleak bere partetik, bideoan agertzen diren egoerak gelaren egunerokotasunean gertatzen direnekin alderatzea.

Horretarako, irakasleak bideoa aurretiaz ikusita izan beharko du jorratzen diren edukiak identifikatzeko eta gelan lantzeko. Honen helburua, ikasleak gaiari sartuta egotea eta gaiaren inguruan zerbait jakitea da. Alde batetik, identifikatua sentitzeko eta bestetik eztabaidatzeko jakituri minimo bat izateko. Hau da, motibazioa pizteko eta parte hartzea sustatzeko.


Azkenik bideoa amaitzen denean, bideoan ikusitakoaren sintesi bat egin beharko da laburpentxo edo eskema eran, ikasle guztiek norabide beran kokatzeko.



Bideoko irudiak



INTERAKZIOA




Metodologiari dagokionez, motibazioa bultzatuko duten dinamikak erabili behar dira. Ildo beretik, helburua ez da irakasleak dena egitea baizik eta hutsuneak eta edukiak ikasleek identifikatzea. Hortaz, ezinbestekoa izango da irakasle eta ikasleen arteko feed back-a



KONTUAN

HARTU BEHARREKOA



Bai ikasleek identifikatuta ikusten direlako, bai edozein momentutan komentario bat egin dezaketelako, jarrera negatibo guzti horiek eta isiltasuna apurtzen duten (isilik egon behar denean) egoera guzti horiek kontrolatu behar dira bideoa ondo entzun ahal izateko.

ERABILPEN EGOKI BATERAKO OHIKO ETA BEHARREZKO INTERAKZIOAK



Kontutan hartuta umeak dituzten aurreiritziak gehienetan helduek sorturikoak direla, eskolara bideratutako gida bat ez ezik, gizarte osoari zuzendutako bideoa da. Esan bezala, aurreiritziak umeengan aldatzeak ez du eraginik aurreiritzien sorterrria helduengan badago. Beraz, gizarte osoari bideratutako bideoa bat da.

JARDURA

Aipatu dugun bezala, proiektu honek ikasleen motibazioa eta parte hartzea da bilatzen duena. Beraz, jarduerak dinamikoak izateaz gain, ikaslea protagonista izan behar da abstrakziotik irten eta egoera erreal eta praktikoetan gauzatutako ariketak gauzatuz. Horregatik da hain garrantzitsua irakaslearen esku hartzea ariketak erabakitzerakoan, bera baita ikasleak eta hauen egoera hobeto ulertzen duena


ARRISKUAK

Aurreiritzien gaia nahiko konplexua izan daiteke aurreiritzi hauek ikasleengan ondo barneratuak egonagatik. Horrez gain, baliteke ikaslea identifikatuta sentitzea eta egia ukatzea bere auto-estimua eta auto-irudia babestearren.



Tratamenduaren luzapena

Egia da bideoak luzapen finko bat duela, baina jarduera batzuei hasiera emateko baino ez da. Beraz, hasieraren luzapena mugatuta badago ere, jarraitasuna irakaslearen esku gelditzen da. Eta irakaslearen esku gelditzen dela diogu, gure ustez ikasleen kontzientzietan aldaketa nabarmen bat gertatu arte landu beharreko zerbait delako. Beraz hasiera zehaztua duen arren, bukaera ikasleen garapenaren arabera izan beharko litzateke.



Sakontzeko ariketa gehigarriak

Ariketa hauen aukeratzea irakasleari dagokio, ariketa motak ikasle taldearen premiei egokitu ahal izateko. Hala ere, hemen zerrenda bat uzten dugu baliagarria izango delakoan:

Historian zehar euskaldunak migratzaileak izan garela erakutsi eta emigratutako lurraldeen ezaugarriak aztertu.

Etorkinekin aritutako aditu bat gelara gonbidatu.

Euskal etxeen ezaugarriak komentatu.

Euskaldunak daukaten fama (txisteetat, filmetaz edota sketheetaz baliatuz) aztertu eta errealitatearekin konparatu.

Beste talde erlijioso, etniko, kultural... baten inguruko aurreiritzi eta estereotipoak identifikatu denen artean eta ezaugarri positiboak eta negatiboak bereiztu.

Erreportaje bat egitea taldeka ikastetxean dauden etorkinen ingurukoa. zer gustatzen jakien, zer jaten duten, ze ohitura dituzten. Eta norberak bere ohiturekin konparatu.



<http://www.frenaelrumor.org/index.aspx>

<http://www.losnuevosvecinos.net/eusk/index.php>

<http://www.educacion.alboan.org/eu>

<http://bcnantirumors.cat/>

<http://www.migracat.cat/document/9b57834cd6d6bd9.pdf>

http://cepaim.org/publicaciones/guia_prejuicios.pdf

BESTE GIDA BATZUK

PRESTAKUNTZARAKO JARRAIBIDEAK

Aurretik

- Aurreiritzi, estereotipo eta diskriminazio hitzak eta hauen esanahia bereiztu.
- Gaiaren inguruan informazio nahikoa bildu ikasleen galderei erantzun ahal izateko.
- Testuak ez ezik, gaiarekin erlazionatuta dauden ikus-entzunezko bitartekoak ere bilatu.
- Identifikatu bideoan agertzen diren gai, eduki zein metaforak gero gelan errealitatearekin eta gelako ikasleek bizi duten egoerekin erlazionatzeko.
- Kulturartekotasunaren aspektu zabalago bat landu eta ez bakarrik etorkinen inguruan, baizik eta adin eta generoen arteko kulturartekotasuna ere.

Bitartean

- Bideoko gertakariak gelako egunerokotasunean gertatzen direnekin erlazionatu edo antzekotasunak aurkitu.

Amaieran

- Laburpen bat egin.
- Ondorengo ariketak zehaztu.
- Jarduerak ikasleen premiekin lotu.
- Bakoitzak gaiaren inguruan duen iritzia jaso.
- Bideoan agertzen denarekin ze punturarte dauden ados aztertu.



JARRERA DESEGOKIENENGANAKO ARRETA

Ariketa dinamikoak eta parte hartzaileak lantzen direnean, sarritan klasea kontrol autoritario horretatik askatzen da eta zailagoa izaten da orden bat jarraitzea. Kasu horretan sortzen dira irakasle zein ikasleen errietak. Horregatik, kontuan hartuta proiektuaren helburua jarrerak kritikatu baino lehen, hauen zergatia bilatzea dela, kontrajarria suertatu daiteke jarrera bat gustukoa ez denean errieta botatzea. Horregatik irakaslea zur egon beharko da egoera horretara bere aldetik hori neurtuz eta ikaskideen arteko eztabaidetan bitartekariaren rola hartuz.

BIDEOAREN FITXA TEKNIKOA

Aurreiritziak identifikatzea eta tratatzea helburua duen bideo bat da. Bideoa youtubeko beste bideo batzuen zatiekin eta grabazio propioekin sortua izan da.

Egilea	Asier Iturrate
Izenburua	Aurreiritzietatik kulturartekotasunera
Urtea	2014
Iraupena	7:29

Bideoa aurreiritziak gure egunerokotasunean egiten ditugun balorazioetan duten garrantziaz ohartzean datza. Migrazioen zergatiari laburpentxo txiki bat egiten zaio gaian sartzeko. Laburpentxo horrekin batera aurreiritziei erreferentzia egiten dio, ondorengo guztia horren gain eraikitzeko. Aurreiritzi ohikoenen deskribapen bat ematen da 4 testigantzez baliatuz, non aurreiritzi horien gabeziak plazaratzen diren. Azkenik migrazioen garrantzia aipatzeaz gain paralelismo bat ezartzen da txoriekin hauek ere migratzaile onak direlako.

Bideoa hiru fasetan banatzen da

Hasiera migrazio eta aurreiritzien gaitan apurka apurka kontzientziatzera bideratuta dago. Hau da, sensibilizazioa bilatzen da.


Bideoaren erdian pertsona batzuen testigantzekin topo egiten dugu. Bertan aurreiritzi ohikoenak gure egunerokotasuneko balorazioetan duten garrantzia azpimarratu nahi da.

Azkenik aurreiritzi horiekin bukatu behar denaren mezua igorri nahi da.

ERABILITAKO MUSIKA

**Gartxot-Nere ate ondoan.
Benito Lertxundi.
Wankelekile. Hot Water.**

ERABILITAKO IRUDIAK



Testigantzetako irudiak

ERABILITAKO BIDEOAK

Nomadas del viento (trailer):

<http://www.youtube.com/watch?v=XFtqKRRn4XQ>

Los prejuicios de los prejuicios:

<http://www.youtube.com/watch?v=FTYWwbGF19U>

Relaxing sounds of nature-wind-ocean waves-soothing tranquil:

<http://www.youtube.com/watch?v=U-Bjp7-ud7E>

Migracion mexico, sueños en transito. El desierto:

<http://www.youtube.com/watch?v=yaCmMkz1k0w>

<http://www.youtube.com/watch?v=yaCmMkz1k0w>

Incontra il sudafrica:

<http://www.youtube.com/watch?v=p7xG46U0mzw>

<http://www.youtube.com/watch?v=p7xG46U0mzw>

Mis thermofavoritos:

https://lh3.googleusercontent.com/-ly9mPpo9E-4/TX31OO3Juxl/AAAAAAAAEUo/FUIIZ_71Ov4/s1600/_MG_4987.jpg

Por fin en Africa:

http://1.bp.blogspot.com/_K2z0XoGnyq0/TizFnO-6zDI/AAAAAAAAABuU/kSy2J1cNL-k/s1600/escuelas+sud%C3%A1frica.jpg

El Pais:

http://ep01.epimg.net/diario/imagenes/2010/06/05/babelia/1275696735_850215_0000000000_sumario_normal.jpg

Crecer feliz:

http://www.crecerfeliz.es/var/ezflow_site/storage/imagenes/ninos/educacion/educar-a-ninos-y-ninas/como-educar-a-ninos-y-ninas/881325-2-esl-ES/como-educar-a-ninos-y-ninas_articulo_landscape.jpg

Kiobolas:

http://kiobolas.com/enchula/imagenes/img/2da_ed_x_Ex2mEpCX0PF5.jpg

Bebes y mas:

<http://img.bebesymas.com/2010/11/abuelo-y-nieto.jpg>

[mishellcabezas.blogspot.com:](http://img.bebesymas.com/2010/11/abuelo-y-nieto.jpg)

<http://4.bp.blogspot.com/-8lvKthmxqPc/UaOGKOTPzOI/AAAAAAAAABA/TLOuJdF7QPE/s1600/gtyuo.jpg>

ALLPE Medio Ambiente:

http://1.bp.blogspot.com/-wK6gZnFTZG8/UylREvBPskI/AAAAAAAAAcBE/qHqNPJq_03c/s1600/mujer+pintada+de+loro.jpg

Mundo chica: <http://static2.mundochica.com/wp-content/uploads/2014/03/loro-ilusi%C3%B3n-%C3%B3ptica-02.jpg>

Las cartas de Magie:

<http://lascartasdemagie.com/wp-content/uploads/2013/01/flor-en-el-desierto.jpg>



